



HERRI BIZITZA BATZORDEAREN BILERA

Data: 2023-11-15 **Bilera zenbakia:** 33

Bilera ordua eta lekua: 19:00 bilera gelan

Parte-hartzaileak: Mari, Rosario (bizi nahi) Monica (guraso elkartea), Unai (arbelaitz), Garazi (gazteak), Nagore, Iker (zinegotziak) eta Nerea (teknikaria)

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Azken batzordeko etxeko lanak.

Azken hilabetetan jai batzordea egin dugu eta hortaz, ez dago etxeko lanik.

Bai gogoraraztea, azken herri bizitza batzordean, batzorde honen dinamikaz aritu ginela eta guztion ekarpenak eta informazioa taldeei helaraztea behar beharrezkoa dela baloratu genuela.

2. Azken ekintzen balorazio laburra

Festen balorazioa zehatza egin zen urriko batzordean.

Aste klima: egindako ekintzen aipamena egin da. Ez dira oso partehartzaileak izan, haurrei zuzendutikoak izan dira nagusiki.

Altzagarate igoera: Oso egun polita atera zen, jendea askok parte hartu zuen.

Nobela aurkezpena: Ekintza polita izan zen baina herritar gutxik parte hartu zuen.

Milagrosen urtebetzea: Jubilatuetan egin zen ospakizuna, pena Simonaren eroria.

Etxera eguna : Ekimen jendetsua, egitarau oso konpletoa.

Eskola kirola hasiera: Ondo hasi dira entrenoen. Aisialdi aukeran izena ematea utzi dieten aferan daude orain.

Pintxo potea: Ondo joan da, orokorrean jendetsuak izan dira

Matraka ikuskizuna: Emanaldi kurioa izan omen zen, jendea gerturatu zen.

Jubilatuen bazkaria: Giro oso jatorra eta bazkaria primeran joan zen.

Urkiko asteburua: 20 lagun inguruko joan ziren, ondo ibili ziren.

Gau beltza: Aurten ere arrakastatsua izan da gau beltzaren ospakizuna.

Ines Osinaga eta Joseba Sarrionandia: Eskolako haurrentzako saioa eskaini zuten eta oso interesgarria izan zen.

Urkiko hamaiketakoak: Ikerrek balorazio ona egin du, izen ematearen garrantzia

azpimarratu du.

Betzaida Urtaza ipuin kontaketa: Taldetxoa bildu zen eta haurrak gustura egon ziren.

3. Hurrengo ekintzak herrian

Az 18: Gaztain jana

Az 24: Kantu afaria

Az 25: Talo jana eta emakumeen indarkeriaren aurkako elkarretaratzea.

Az 30: Greba feminista

Ab 13: Santa Lutxi (jubilatuk)

Ab 15. Ameli eta xirrikituak jostunak kontaketa izango da da, 17:00etan haurrentzat eta 19:00etan helduentzat.

Ab 21: Santo Tomax (jubilatuk)

Urtarrilean talo ikastaroa egingo da, bi saio: egun batean haurrak eta besteak helduak

4. Elkartetatik datozenak...

Jubilatuak: Aipatzen dute podologo zerbitzua oso ondo funtzionatzen ari dela.

Memoria tailerreko dinamizatzailerak aldatu omen dute eta oso gustura daude, dena den, aipatu dute erdaldun bat hasi dela eta horren ondorioz klase guztiak erderaz egiten dituztela.

Mugikorra eskatu dute mezuak etab. jaso eta kudeatzeko.

Ikerrek aipatzen du aldizkariko agendan mus txapelketa txertatzeko.

Gazteek kamisetak salduko dituzte azaroaren 24ean, emakumeen indarkeriaren aurkako egunerako.

Komentatu dute 5. Mailakoek gaztelekura etorri nahi dutela eta hitz egiten egon direla eta ez dutela begi onez ikusten, urtero errepikatu daitekeen gertaera da eta. Gazteri foroan hitz egin dela esan zaie eta orokorrean iritzi berekoak garela.

Guraso elkarteak saski bat aterako dute, dirua ateratzeko asmoz.

5. Besteak:

- Hitzarmenak justifikatzeko eta ordainketak egiteko epea. Abendu bitarte egin behar dira. Abenduaren 15erako epea jarri dugu.
- Hurrengo astean, azaroak 22 edo 23an banatuko da herri aldizkaria.
- 2024 udal aldizkaria, zahartzaro aktiboa gaia izango du. Gai honekin erlazioa izan dezaketen argazkiak baldin badituzue bidali udalera.

- Gaztelekua irekitzeko txartela sistema berria ezarriko da: sistemaren berri eman da.

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
<i>Hitzarmenen justifikazioa</i>	<i>Elkarteek</i>	<i>Abenduak 15</i>
<i>Egutegia "zahartzaro aktiboa" argazkiak bidali</i>	<i>Denok</i>	<i>Azaroak 24rako</i>
<i>Agendan txertatu mus txapelketa</i>	<i>Nerea</i>	<i>Batzorde ondoren</i>
<i>Batzordean hitz egindako gaiak elkarteetan/ taldeetan komentatu.</i>	<i>Denok</i>	<i>Elkartetako bileretan</i>
<i>Euskara erabilpena memoria tallerretan</i>	<i>Nerea</i>	<i>Batzorde ondoren</i>
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera: Urtarrilak 17, 19:00		